

ANTZERKIA > 'ERRAUTSAK'

SUAK BIZIRIK DIRAU?

'ERRAUTSAK' ANTZEZLANAREN ESTREINALDIA

Artedrama eta Le Petit Theatre de Pain taldeek elkarlanean landutako ikuskizuna da 'Errautsak'. Datorren astelehenean estreinatuko da, Lapurdiko Luhuso herrian, eta hildako gizon baten azken agurrean biltzen den lagun talde bat du ardatza.



Behin betiko gidoia Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolarien lana izan da



'Errautsak' izenburuko antzezlaren eskena baten irudia. ARGAZKILARIA: AINHOA RESANO

Lagunen bilera festa basati bihurtuko da. ARGAZKILARIA: AINHOA RESANO

ITZIAR EGILAZ

XI. mendea da, eta XX.eko ametsen errautsak gara. Oraindik orain, errautsotan noizbait surik izan zela sinestarazi nahi diegu geure buruei. Ba ote?". Galdera hori abiapuntutzat hartuta jaio da *Errautsak* antzerki egitasmoa; Artedrama eta Le Petit Theatre de Pain (LPTP) taldeek elkarlanean landutako ikuskizuna hurrengo astelehenean, azaroaren leian, Luhuson estreinatuko da.

Orain dela lau urte, bi antzerki-konpainiek euren baliabideak elkartzeko erabakia hartu zuten, "euskarazko antzerki-sorkuntza garaikidean batera lan egin ahal izateko". Antzerkigintzaren egoeraz hausnartu eta emaitza hurrengo izan zen: "Oraindik euskal antzerki-sorkuntzak ez du momentu ekonomiko oparorik izan, nahiz eta artista berriak eta publikoa inoiz baino elkartuago dauden". Hori dela eta, eskura zituzten baliabideen etekinak biderkatu ahal izateko, bidea elkarrekin egiteko ideia bururatu zitzaion.

Artedramako partaide den Xabino Alkorta azaldu duenaren arabera, erabaki hura hartuz geroztik konpainien arteko hartu-emanak anitzak izan dira. Esate baterako, Ander Lipusek (Artedrama) Le Petit Theatre de Pain-en *Aulki hutsa* antzezlana zuzendu zuen. Horrez gain, talde bakoitzak bestearen antzezlana bere ingurunean "mugitzeko" ahaleginak egin dituzte eta, ondorioz, Artedramakoei Ipar Euskal Herrian eta LPTPkoek mugaren hegoaldean aritzeko aukera

izan dute. "LPTPk eta Artedramak, bakoitzak bere lurraldean, egitura eta sorkuntza egonkorak eraikitzea lortu dute eta beraien egiturak komunean jartzeko apustua" egin dutela azaldu dute.

Hala ere, azken lau urteotan elkarlana sakonduz joan da eta horren emaitza nabariena astelehenean estreinatuko den lana dugu. *Errautsak* izango baita Artedrama eta Le Petit Theatre de Painek bat egin eta aurrera atera duten lehen lana. Bi taldeen artean gidoi orokorra eraiki zuten. Ondoren, eta pertsonajeen bat-batekotasunean sakontzeko asmoz, bertsolarien laguntza eskatu zuten. Horrela, behin-betiko gidoia Unai Iturriagaren eta Igor Elortzaren lana izan da.

Argumentuari dagokionez, Hodeiren heriotzarekin hasten da antzezlana. Gertaeraren ondorioz gaztaroko lagunak, urteetan elkarren berririk izan gabe egon direnak, hiletan bilduko dira. "Saminak eta berriz elkartzearen emozioak eraginda, Hodeiren azken agurra garai bateko festa basati bihurtuko da", azaldu dute konpainiatik. Gau eroak iraganeko eta egungo egi-

ak, gezurrak eta kontraesanak azaleratuko ditu. Ondorioz, mina eragiten duen egia ikusiko dute: "Noizbait izatea amestu eta sekula izan ez zirenen errautsak baino ez dira geratzen".

Sei antzezle izango dira taula gainean, Hodeiren inguruan biltzen diren sei lagunak hezur-haragizko bihurtzen. Zehazki Ximun Fuchs, Ander Lipus, Miren Gaztañaga, Manex Fuchs, Ainara Gurruztaga eta Urko Redondo ikusteko aukera izango da. Ximun, gainera, zuzendaritza-lanetan ere aritu da.

Lehen emanaldia eta estreinaldia azaroaren leian izango da Luhusoko Harri Xuri aretoan. Azaroan zehar, gainera, 16 emanaldi egin-



Sei pertsonaia, sei hizkera

Pertsonaiak Eider, Erramun, Zigor, Pili, Kaiet eta Fermin dira, Hodeiren hiletan bilduko direnak. Hizkera izango dute bakoitzaren jatorriaren lekuko eta, horrenbestez, eszenatokian sei euskalki entzuteko aukera izango da: xiberera, lapurtera, nafarrera, bizkaiera, gipuzkera eta batua. Antzezlana, bide batez, euskaren mapa topografikoa.

go dituzte Euskal Herrian zehar. Honen harira, Xabino Alkorta ahurrengo azalpenak eman ditu: "Bi taldeen dinamiken artean lan horri lekua egitea oso zaila zenez, hilabete oso bat hartzea erabaki genuen aspaldi, emanaldiak egun horietan pilatzeko". Emaitza harri-garria da: 16 aldiz izango dira taula gainean azaroan. Ekimenaren oinarriekin bat eginda, euren presentzia nabaria izango da bai Hego Euskal Herrian bai Iparraldean ere. Luhusoren ostean, Erandio, Zumaia, Donostia, Larresoro, Bergara eta Gernika etorriko dira.

Egitasmoaren berri emateko abian jarri duten webgunean azaltzen da obra jasoko duten herri guztien zerrenda: errautsak.com. Gunea bisitatu antzezlana berria ezagutzeko aukerak anitzak direla ikus daiteke. LPTP eta Artedramaren eskutik elkarlan berria jaio da, eta ez dirudi azkena izango denik. Suak, hortaz, bizirik dirau.